

AITOR

Ikerketa bisualak bidegurutze epistemologiko transzidental batean

AURREKOETXEA

Resumen

En este artículo se hace mención del amplio eco que los estudios visuales han alcanzado, comprendiendo no sólo dichos estudios sino también las múltiples concomitancias que éstos tienen con otras disciplinas como la semiótica, la estética, la antropología, la sociología de la cultura, etc...

Es en este punto donde se presentan algunos problemas de orden metodológico que se abordaron pormenorizadamente en el I congreso de estudios visuales desarrollado en Madrid en febrero del 2004, organizado por los amigos de Arco.

Para ello, se intenta explorar los estudios visuales desde una perspectiva gnoseológica y genealógica que sólo puede ser acometida desde un enfoque epistemológico adecuado.

Se sigue, en este sentido, el esquema propuesto por Hernández-Navarro, que se resume en la atención que deben suscitar preguntas del tipo «¿Cuál es el objetivo de los estudios visuales?, ¿Qué método de conocimiento se utiliza para tratar dichos estudios?»

Se advierte también del peligro que se corre a la hora de colocar barreras disciplinarias en torno a los esquemas concernientes a los estudios visuales (Mirzoeff)

Se acaba por fin presentando a los estudios visuales más como una *indisciplina* que como una disciplina *strictu sensu*, que debe ser abordada críticamente. Quizá tal y como apuntará Mirzoeff tratados desde el punto de vista de la disciplina táctica o estratégica, en vez de desde el ya periclitado punto de vista de la disciplina académica.

Para ello, será determinante el entender cómo conocemos los estudios visuales para, en definitiva, concluir que se conoce su funcionamiento esencialmente, y aunque parezca de perogrullo, de una manera netamente visual.

Así pues, los estudios visuales complementan su corpus determinativo no sólo con apartados provenientes de la estética o la historia del arte, sino también y muy sobremano con elementos provenientes de la cultura **industrial**, tecnológica y científica, y también del cine, video y televisión. Y es en este último apartado donde probablemente haga aguas nuestra *episteme* tradicional, pues todavía hemos de reconocer nuestra bisoñez en la comprensión extensa de los recorridos multidireccionales de toda índole con que los estudios visuales nos obsequian permanentemente.

El conocimiento discursivo que nos brinda el arte y la verdad del arte son no discursivos, constituyen la unidad de un saber cuya otra mitad es discursiva: la revelación de ese contenido de verdad en conceptos por parte de la filosofía y la crítica artística. Pero esas dos partes no son agregables o fundibles en un todo superior, el arte es irreductible a teoría y viceversa.

Cyril Jarton

Ikerketa bisualen zabalkundeak adierazten digu artearen historia, kultur ikerketak, semiotika, estetika, kultur antropologia, kulturaren soziologia eta beste diziplina batzuk elkarrekin lantzearen ondorioak aztertzeko gaitasuna duela. Humanitateak problematizazio alorrerako edota gertakizunak eta jakintzak ezagutza ereduera, konpresio sistemetara eta erreferentzia eta interpretazio markoetara murrizteko sortu badira, gero eta handiagoa den ikusmen kulturaren hegemoniak diziplina horren birmoldaketa eskatzen du, baita beste diziplina batzuekiko kooperazio sinergikoa, kontzeptu berriak eta interpretaziogailu egokiagoak asmatu ahal izateko.

Eginkizun kritiko honek orain arte landutakoa hobetzeko ahalegina luzatzen du, bai kultur ikerketetan bai tradizio handiagoa duten beste diziplina batzuetan, izaera hibridoa duen teoria kritikoa bateratzeko ahaleginean. Hala ere, eklektizismo berriztatzaileen eta teoria holisten artean ibiliko den diziplina arteko sinkretismoa bultzatzeko arriskua bada.

Erronka horiek, arte garaikidearen teorien egikaritzean, ikerketa bisual hasiberri batzuek duten jokaeraren azterketa egiteko saiakera edota ezinbesteko enpresa metadiziplinar gisa ulertu beharko genituzke.

Estetika eta ikerketa kulturalaz gain, kontzeptu dinamiko baten diziplina arteko hurbilketa bati hasiera ematea izango litzateke, hain zuzen ere, ikerketa bisualak aztertzeke lehen hurbilketa. Baina, azken hauek sakabanatutako arlo teoriko baterantz jotzeko joera dute.

Modernotasun berantiarraren bilakabidean edota izaera modernotik posmodernorako jauzian, sentsibilitateak sortzen den jakite erreflexiboaz eta arteaz arduratzen den filosofiaren arloa, hots, estetika, susmopean geratu da.

Horrela, Vicente Jarquek dio estetika filosofiaren beste espezialitate batzuetatik ondoen bereizten duena, praktikaren filosofian edota diziplina teoretika klasikoetan (epistemologian, ontologian) koka daitekeen jakitean datza.

Artikulu honetan ikerketa bisualen gaurko egoera aztertu nahi dugu, eta ahal den neurrian behintzat saiatuko gara ikerketa bisualen arloak epe labur batean nondik nora joko duen eta zein motatako deribak hartuko dituen aztertzen.

Horretarako, nahitaezkoa deritzogu diziplina horren inguruko diskurtso koherentea eta malgua aldarrikatzea, batez ere diziplina honen eskuhartze kritikoari dagokionean.

Gauzak horrela, arazo horri aurre egiteko alderdi gnoseologikoak¹ eta genealogikoak esplorazio epistemologikoaren bitartez aztertzea izango litzateke egokiena.

Horretarako, Madrilen otsailean ospatu duten *Nazioarteko ikerketa bisualen I. kongresuaz* baliatu gara, eta ikerketa bisualen mundu berri eta erakargarria landu duten irakasle batzuen ekarpenak jaso ditugu. *Arco*-ri ere gai hau jorratzeko eskaini digun laguntza eta lankidetzak eskertu beharrean gaude.

Hernández-Navarroren eskema jarraituz, ikuspuntu gnoseologiko batetik begiratuta, tematika honen kontu garrantzitsuenak aipatzen dituzten galdera batzuei erantzun beharko genieke. Esate baterako, *Zein da ikerketa bisualen xedea? Zein ezagutza metodo eta tresna erabiltzen dute?, ...*

¹ Miguel A. Hernández-Navarrok ere «*Asociación amigos de Arco*»-k antolatutako nazioarteko ikerketa bisualen I. Kongresuan (Madrid, 2004ko otsaila) ikerketa epistemologikoak egiterakoan alderdi hauek oso kontuan hartzekoak direla adierazten du.

Ikuspuntu gnoseologiko batetik, saiatuko gara honako galdera hauei erantzun zehatza ematen: *Zer eta nola ezagutzen dute ikerketa bisualek?, Zeintzuk dira haien tresnak eta ezagutzarako metodoak?, Zein da ikerketa bisualen ezagutzaren entitatea? Ikerketa bisualak zein neurritan dira ikerketa zientifikoak?*

Genealogia kritikoaren ikuspuntuak, berriz, arreta berezia jartzen du ikerketa bisualak noiz, nola eta zergatik egiten diren aztertzerakoan. Galdera honako hau da: *diziplina baldin bada, zein motatako diziplina da? Zein harreman mota dago gainerako diziplinekin?*

Galdera hauek eta antzeko batzuen erantzunean egongo litzateke ikerketa bisualen arlo epistemologikoaren muina. Galdera horien erantzunekin, ikerketa bisualen arlo epistemologikoaren arloaren zabalkuntza erraztuko litzateke.

Laburbildutako testu honetan, orain arte azaldu ditugun funtsezko gai hauek jorratzen ahaleginduko gara.

Gai horietatik premiazoena, zalantzarik gabe, ikerketa bisualei buruzko horrelako hausnarketak egitea beharrezkoa dela izango litzateke. Argi dago, gure asmoa ez dela muga berriak jartzea. Mirzoeffek esaten zuen bezala *de poco serviría romper las viejas barreras disciplinarias, si el objetivo fuera colocar en su lugar unas nuevas.*

Epistemologiari buruz hitz egiten dugunean, alegia oinarri eta printzipioez ari garenean, soilik hizkuntza jakin bat erabiltzen dugu, hau da, hizkuntza zehatza. Dena den, horrek ez du esan nahi ikerketa bisualen elementurik garrantzitsuena moztu nahi dugunik, hain zuzen ere, mugatzeko zailtasuna moztu nahi dugunik. Guk defendatuko dugun tesian, nabarmenduko da ikerketa bisualak diziplina baino gehiago (orain arte horrela izendatu baditugu ere) indiziplina direla, hau da, presio akademikotik at kontsideratzen ditugula.

Horregatik, uste dugu ezagutzaren esparruan badirela ikerketa bisualak eta kritikoki aztertuak izan behar direla.

Erabiltzen den terminologia neurri batean anbigua eta nahasgarria da, batez ere *Ikerketa bisualen* (Visual Studies) eta *Kultura bisualen* (Visual Culture) konstruktio terminologikoen erabilerari dagokionean. Termino hauen esanahia zehazteko, esan dezakegu *ikerketa bisuala* ikerketa arloa edo diziplina bera izango litzatekeela, eta *kultura bisuala* ikerketaren xedea. Bereizketa hau zenbat eta gehiago zehaztu ez da hobeto ulertuko, sarritan kultura bisualei buruz hitz egiten baita diziplina bat izango balitz

2 Horrela ohartarazten digu Nicholas Mirzoeff-ek, kultura bisuala bereizirik landu behar dela eta diziplina akademiko mailan *strictu sensu*.

3 Akademia, kanonikotasunarekin, zorrotasunarekin eta ordenarekin gehiegi lotzen den kontzeptua da.

bezala, esate baterako, Mirzoeff-ek² edota Bryson-ek edo Moxey-ek egiten duten moduan, kultura bisuala diziplina gisa aztertua baita. Orain egiten ari garena, batez ere, ikerketa bisualen azterketa da, kultura bisualen ezagupenaren diziplina gisa.

Ikerketa bisualen azterketaren xedea kultura bisuala dela onartzen badugu, beharrezkoa da zer den kultura bisuala mugatzea, edo behinik behin ikerketa bisualek nola definitzen duten zehaztea, eremu oso zabal batean taxututako objektu anizkoitza eta mugatzeko zaila dela baitiote. Premisa honetatik abiatuta, ikerketa bisualak ikus-eremuko eraikuntza sozialaz arduratzen dira, ikusgai dagoen oro nola dagoen soziokulturalki eraikia eta egituratua aztertzeaz, baina batez ere, gizarte eremuko eraikuntza bisualaz, hau da, edozein kultura ikusgai bihurtzeko eraz arduratzen dira (hau W.T. Mitchell-en esatera da). Nahiz eta alde hori finegia dela dirudien, proposizio truke soil batek eragindako enfasi aldaketak —*ikus-eremuko eraikuntza sozialetik gizarte eremuko eraikuntza bisualera*— ikerketa bisualen xedea zein izango den erabakiko du: dimensio bisualak garrantzi politikoa izan badaukate, eta gailentasun horrek diziplina tradizionaletatik urrundu egiten ditu. Horregatik, Mirzoeff-ek eta beste batzuek nahiago dute ikerketa bisualaz hitz egiten ari direnean, diziplina taktika edota estrategiko gisa definitzea, eta ez diziplina akademiko gisa.³

Zentzu honetan, komenigarria litzateke ikerketa bisualek nola ezagutzen duten jakitea. Bada, lan-arloko eraikuntza bisualaz hitz egiteko, paradoxikoki bada ere, beharrezkoa da ikusmenetik urruntzea.

Epistemologia *bachelardianaren* hitzetan, *coupure* birtuala edo haustura izango litzateke: errealitateetik urrundu bitxikeria gisa behatu ahal izateko. Mitchell-ek ere ikustea erakusteko prozesuan, antzeko zerbait planteatzen du, *Showing seeing* deitzen duena: errealitateetik aldentzea, ikustearen siniestralizazio antzeko zerbait, ikusmenean eta ikusitakoan naturalak ziruditen egiturekiko desfamiliarizazioa. Beharbada hauxe izango da epistemologia arloan aztertu beharko den lehenengo arazoa eta garrantzitsuena: nahiz eta begien bistakoa izan, ikerketa bisualak bisualki ezagutzen dira.

Ikerketa bisualen menderatze «diziplinarrari» dagokionean, esan daiteke bere gain hartzen dituela «artearen eta estetikaren historia ezezik, irudi zientifiko eta teknikoak, filma, telebista eta media digitalak, ikusmenari buruzko eztabaida filosofikoak, irudi eta zeinu bisualen ikerketa semiotikoak, sustapen eskopikoei buruzko ikerketa psikoanalitikoak, prozesu bisualen ikerketa fenomenologikoak, fisiologiko eta kognitiboak, ikuslea eta erakusketari buruzko ikerketa soziologikoak, antropologia bisuala eta optikoa, ikusmen animala eta askoz gehiago ere.

Ikerketa bisualen alderdi genealogikoa, badirudi epistemologia ahul batekin erlazionatuta dagoela. Mitchell-ek aipatzen dituen ikerketa eremu eta diziplina gehienak «epistemologia gogorraren» krisialdiaren ondoren, diziplinaren oztopoak «hausten» hasi dira, eta «ezagutza» bat ekoizten hasiko da, dagoeneko obsoleto, ahul eta artifizialak ziren oinarri batzuetatik abiatuz. Ikerketa bisualak, berriz, eremu magnetiko baten gisa konfiguratuko dira, elkarrengandik erakarri eta aldaratzen diren puntu eta indarguneekin. Ia ia esan liteke diziplina-errizoma bat dugula. Diziplina honek helburu-errizoma bati heldu nahi dio, hain zuzen ere, bisualitateari, objektu-anitzari, ikuspuntu batetik aztertzeko zaila eta kulturaren bisualizazio anitzari arreta jartzeko gai den ikerketa eremu anitzari.

Ikerketa bisualen izaera errizomatikoaz jabetu beharra dugu —ahula, kontraesankorra, anbigua, zehaztugabea—. 1928an Bachelard-ek bere *Essai sur la connaissance approchée* lanean esaten zuen ezagutza «zientifikoaren» oinarri funtsezkoena, zehaztasun ezaz jabetzea zela. Orain, agi denez, ez gara zientziaz hitz egiten ari, ezta zentzu tradizionallean ulertzen zen diziplinaz ere. Dena den, eta nahiz eta kontraesana dirudien, ikerketa bisualen kritizazio eta autoezagutzatik aurrera egitea beharrezkoa da, geroago geure buruari galdetzeko zein den horren xedea, baldin eta xederik badu.

Erabilitako iturriak

Arco-ren lagunak izeneko elkarteak antolatutako Ikerketa Bisualen Nazioarteko Lehen Kongresuan (Ikerketa bisualak XXI. mendean) aurkeztutako txostenak:

1. *I Congreso Internacional de Estudios Visuales*. José Luis Brea
2. *Epistemología de los estudios visuales*. Miguel A. Hernández Navarro
3. *Estudios visuales versus Historia del Arte*. Anna Maria Guasch.

Bibliografia

Brea, José Luis, *NUEVAS ESTRATEGIAS ALEGÓRICAS*. Ediciones Tecnos. Madrid. 1996.

Givone, Sergio, *HISTORIA DE LA ESTÉTICA*. Ediciones Tecnos. Madrid. 1999.

Mirzoeff, Nicholas, *UNA INTRODUCCIÓN A LA CULTURA VISUAL*. Paidós. Barcelona. 2003.